



Krosaren katedrala.- Giro ezinhobean ospatu zen atzo Nazioarteko 58. krosa Lasarteko Hipodromoan. Eguraldiak errespetatu egin zituen bai atletak baita Hipodromoko harmailak bete zituzten zaleak ere. Teeklemarian Mehdiñ-ek eritrearrak pronostikoak bete zituen, lasterketa zoragarria egin zuen hasi eta buka, helmugako zinta hautsi arte. Bere atzetik, Thomas Ayeko ugandarra helmugaratu zen eta Antonio Jiménez 'Penti' andaluziarra iritsi zen hirugarren, Ivan Fernández arabarrek lehia izugarri bezain polita izan ostean. Emakumezkoen lasterketan Sofia Assefa etiopiarra gailendu zen Micah Chemos keniar faboritoaren aurretik. Bi afrikarren atzetik, Diana Martín espainiarra helmugaratu zen, meritu handiko krosa burutu ostean. Atletismoa arnas zitekeen Hipodromoan, egun zoragarria igaro zuten ikusle zein atletek, Landaberri, Amasorain eta Santo Tomas Lizeoa taldeetan banatuta, azpiko kategorietan parte-hartu zuten zortzi atleta lasarteoriatarrek barne.

3 KULTURA

Antzerkia eta bi musika kontzertu asteburuan

Herritarrek ostiral gauean bi musika kontzertuz gozatzeko aukera izan zuten. Arramazka taldeak Jalgin Argilunpetan disko berria aurkeztu zuen eta Big Time Sound System berriz, Bar de Maun aritu zen denetarikoko musika pintxatuz. Larunbatetan "Ali Baba eta 40 lapurrak" antzezlanak izan zen ikusgai.

4-5 MATRIKULAZIOAK

Ikastetxeetako matrikulazio garaia gaur hasi da

Lasarte-Oriako hezkuntza matrikulazio epea irekitzearekin batera, herriko ikastetxeekin harremanetan jarri gara euren eskaintza hurbiletik ezagutzeko asmoz. Denek ikasleen beharretara egokiturako hezkuntza sistema euskalduna eta kalitatezkoa lantzen dituzte.



6 IGERIKETA

Master taldea bigarren izan zen Zarauzko Openean

Buruntzaldea IKtako igerilariak sasoitsu daudela erakutsi zuten lehengo asteburuan. Masterrek Zarauzko Openean bigarren postua eskuratu zuten. Jone Vazquezek brontzeko domina lortu zuen Luzera handiko EHko txapelketan eta txikiak ere ederki egin zuten igeri Kirol Zehaztasun ligako jardunaldian.

NTRA. SRA. DE ARANZAZU IKASTETXEA (JESUITINAS)



- 0-16 urte hezkuntza: Haurtzaindegia / Haur Hezkuntza / Lehen Hezkuntza / DBH
- Kristau zentroa eta baloreen hezkuntza.
- Itundutako zentroa.
- Eskola eleanitza.
- Haur txoko 07:30etik.
- Eskolaz kanpokoak.
- Jangela.

ALTO DE ERRONDO 121, 20009 DONOSTIA
Tel.: 943 21 23 07

WEB: <http://www.jesuitinasdonostia.com/>

Adituak dio

Talaiatik



Edu Galardi

Azto hipodromoan izandako krosaren 58. edizioak zenbait irudi ekarri dizkit gogora. Txuribeltzak dira argazkiak, gure zaharrek kontatutakoak. 1956. urtean Nazioen krosa izenarekin lehenengoz antolatuta zenetik atleta handiak lehiatu dira hipodromoan.

Krosari mitikoak ikusi ditugu lokatz, euri, elur, kazkabar eta haizeari aurre eginez. Zatopek, giza-lokomotora, Mimoun, Mamo Wolde, Joxe Migel Maiz aiarra, Mariano Haro, Carlos Lopes, Tura maitagarria, Ngugi keniarra bost aldiz munduko txapeldun, Fita Bayisa edo Haile Gebreselassie enperadore etiopiarra... batzuk aipatzeagatik. Emakumezkoetan ere beste hainbat txapeldun, Carmen Valero, Rosa Mota, Luchia Yisak edo Derartu Tulu.

Gogoangarria izan zen 1958.ean Emil Zatopek ikustera etorri zen jendetza. Milaka lagun hurbildu zen gurera oinez, trenez, autoz. Hurrengo urteetan ere ikaragarria izan da jendearan etorria, hipodromoko harmailak eta inguruko mendi-hegiak betetzeko adina.

Orain, koloretan, apalagoa da kros honen distira. Halere gustura betetzen ditugu urtero, urtarrilaren azken igandean, ohiko erritotak, hipodromora hurbildu zahato eta hamaiketakoarekin, lasterketaz gozatu eta belar lokaztuaren usaina barruan dugula, etxerako epelera itzuli.

Ez dakit krosaren eraginez izango den baina atletismoak fruitu ederrak eman ditu herrian. Landaberriko atletismo taldea, Michelin eta LOKEan garatu dena, herriko zenbait atleten beste klubetan lortutako garaipenak, edota herrian antolatutako kros herrikoiak duen arrakasta.

Lan eta borroka handiz atletismo moduloa lortu zen Michelingo udal instalazioetan baina badirudi txikia gelditu dela. Ondoko ahotsek 400 metroko pista bat eskatu dute herriko atletentzat. Ea ba posible den.

Txapeldunak denon ardura dira

Kirola egitearen garrantziaz hitz egiten genuen duela ez asko. Herrian oso lan ona egiten ari diren kirol talde eta norbanakoen adibide andana dugu. Txintxarriin askotan jasotzen ditugu hauen lorpenak eta hala ere, futbolari garrantzia kendu gabe, bada atletismoan, igeriketan, esku pilotan... lan handia egiten duenik. Atzo bertan ospatu zen Hipodromoan Nazioarteko Krosa, lehen mailako korrikalariak izan genituen gure artean, Donostiako krosa deitzen bazaio ere, lasarteoriatarrek izan dute lotura berezia kirol erakustaldi honekin Edu Galardik ondo gogorarazten duen moduan, eta nahi genuke bai, horien artean herritar bat eduki.

Korrikalari hauek ikusita, gogora etortzen zaizkigu herrian gaueko 21:00etan Michelingo kirol gunean entrenatzen ikus-

ten ditugun gazteak. Asko dira lanetik edo eskolatik bueltan egindako orduak, asteburuetakoak... lan horren fruituak txapelketa ezberdinetan eskuratzen dituzten dominak edota gaitzeara lortzen dituzten denbora, marka pertsonalak dira.

Jende gehien erakartzen duten kirolek izan ohi dute errazen erakundeen babesa eskuratzea, udalarena adibidez eta euren instalazioetan beti hobetzeke dauden gauzak egon arren, nahikoa asetuta izan ohi dituzte euren beharrak. Michelingo kirol gunean duela hilabete gutxi aldatu zuten belarra eta hainbat hobekuntza egin ziren. Hala ere, orokorrean, herriko kirol instalazioak txiki eta zaharkituta geratu direla kexu dira erabiltzaileak. Herrian kirolari onak nahi baditugu, denon ardura da kirol instalazio egokien alde borroka egitea.

Hitz eta pitz

Zer iritzi duzu atletismoko pista handitzeari buruz?



Ane Galardi

Ondo iruditzen zait, atletismoan aritzen garenok behar dugu, zaharra txiki ari zaigu geratzen. Baliabide gehiago bideratzen dira beste kirolertara, futbolera esaterako. Ulergarria izan daiteke hori, herritar gehiago aritzen delako futbollean, baina horrek kalte egiten digu guri. Gure kirola da eta ez dut esango ez dela errespetatzen, baina bai futbolari garrantzia gehiago ematen zaiola.



Maider Rekondo

Beharrezkoa da atletismoko pista berria. Atletismoan aritzen naiz, duela gutxi hasi nintzen baina esan dezaket pista pixka bat kaxkax dagoela. Hondarra ez dago ondo. Beste kirol batzuei, batez ere futbolari garrantzia gehiago ematen zaio. Orain rugbian jokatu dutenentzat ere berritu eta prestatu dute zelaia, beraz pixka bat baztertuak sentitzen gara.



Aritz Berasategi

Nik ez dut atletismoko pista ezertarako erabiltzen eta beraz berdin zait, ez zait asko inporta. Ni futbolean aritzen naiz eta gure zelaia ondo egotearekin konforme. Ondo geratu da belar artifizial berria. Ondo jarri dute. Ez naiz bereziki atletismo zalea, baina Nazioarteko Krosaren egon izan naiz aurreko urteren batean. Politia izaten da krosa, gustatzen zait.



Vivi Valin

Ondo dago kirola egiteko instalazio onak izatea. Kirola egitearen eta bultzatzearen alde nago eta beraz toki egokiak eskaintzearen alde. Gero betiko eztabaida dago hor, batzuek esango dute diru asko dagoela futbolarientzat edo atletismoarentzat eta beste kirol txikiago batzuentzat ez dagoela hainbeste, esaterako pilotarentzat. Eta beste batzuek kontrakoa esango dute.

Iruditan

Lasarte-Oriako Nazioarteko krosa



Gure Gipuzkoa Nazioarteko krosaren lehen edizioa 1956. urtean ospatu zen.

Ken Norris atletak irabazi zuen lehenengo Nazioarteko krosa 1956. urtean. Geroztik, urte hauetan, lasterketak izen handia hartu du mundu mailako atletismoaren baitan. 1956ko maiatzaren 19an Nazioen Krosa ospatu zen herrian. Honetan Gordon Pirie zen faboritua baina ezin izan zuen lasterketan parte hartu eta Frank Sando ingelesak eraman zuen garaipena. English Cross Country Union-eko ordezkariak, Gipuzkoako Atletismo Federakuntzari urtero frogatzen zaien proposamena egin eta honela sortu zen Donostiako Nazioarteko Krosa. Lehenengoa 1956. urtarrilaren 29an izan zen eta honen antolakuntza lan egin zuen Willy Kochek zuzendutako zaletu taldeak. Jose Ignacio Imazek, Gipuzkoako Atletismo Federakuntzako lehendakaria, Pancho Gomezek eta "La Voz de España" aldizkariak sustatu zuten lasterketa euren lehen urteetan. Emakumezkoen Krosa berriz, 1971. urtean aurrera hasi zen egiten.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakin Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I.,
Maider Azurmendi, Jon Altuna E.
bntxam@bntxam.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakin.com
administrazioa@ttakin.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

KULTURA



Aitzol (gitarra) eta Aroa Lasa (abeslaria) lasarteoriarrak dabilta Arramazka taldean, Jalgiko kontzertuko irudia.



Big Time Sound System-eko "El Quebraley" eta Nakor Selektor pintxatzen, Maun.

Asteburuko kultur adierazpenak

Arramazkak Argilunpetan disko berria aurkeztu zuen Jalgin

Bost musikarien instrumentuez gain, Aroaren ahotsa, Jalgiko paretak eta ikusleen bihotzak ere arramazkatu zituen ostiral gauean Arramazka taldearen kontzertuak. Jende asko hurbildu zen Argilunpetan diskoaren aurkezpena, eta etengabe hazten ari den taldea dela baieztatu zuten beste behin, kontzertu trinkoa eskainiz. Behar zenean leun, behar zenean bortitz, teiltuetako gaukatu bakartien ibilera antzestu nahian bezala.

Arramazkaren kontzertuaz gain, Bar de Maun ere izan zen musikaz gozatzeko aukera. Nakor Selektor eta "El Quebraley" aritu baitziren Big Time Sound System proiektuaren barnean ska, jazz, soul eta reggae

kutsuko musika pintxatzen. Goizaldeko ordu txikitara arte luzatu zen ostiraleko festa.

Ali Baba eta 40 lapurrak

Kultur-etxeko aretoan 'Ali Baba eta 40 lapurrak' haurrentzako antzerkia ikusteko

aukera izan zen larunbata arratsaldean. Borobil Antzerki Talde nafarrak interpretatutako obra haurrentzat izateaz haratago, famili ikuskizun polita izan zen, hiru aktoreen lanari musika, argi-joko eta koreografiak gehituta, hiru aktore protagonistek munduko lapur famatuaren istorio magikoa kontatu zuten.

Persian egongo balitz bezala sentitu zen ikuslea, 3x2 metroko alfonbra batez lagunduta, bazarrak, basoak, kobazuloa eta istorioko gainontzeko lekuak girotu zituzten, berez ederra eta mezuz betea den istorioari indar handiagoa emanaz.



Ali Baba eta 40 lapurren istorioa kontatu zuen Borobil Antzerki Taldeak. TXEMA VALLÉS

Sorturen eratze prozesua azken txanpan

Sorturaren eratze prozesuaren hirugarren bilera egin zuen larunbata goizean Villa-Mirentxun. Bertan bildu ziren lagunek hiru gai edo alor jorratu zituzten alderdi berria sortze bidean.

Lehenik eta behin, barne-antolaketa inguruan eztabaidatu zuten, besteak beste, demokrazia parte-hartzailearen beharraz, euskarari lehentasuna emateaz eta alderdian parekidetasuna eta balio feministak txertatzeaz solastu ziren.

Bigarren puntuan, bloke instituzionala, ideologikoa eta masa borroka izan zituzten mintzagai, auzoetatik abiatuta herriari begira landu beharko zirela hobetsi zuten.

Azkenik, herriaren alderdiak izan behar duen antolaketa zehazten saiatu ziren, herri batzarrei garrantzia emanaz eta hauen nolokotasunak eztabaidatuz.



Lan-talde txikitik landu zuten bloke bakoitza. Jendeari parte-hartzeko dei egiten diote.

Bilera hauekin, aurrera begira alderdiak izango dituen erronkak finkatzen saiatzen ari dira, gai askoren inguruan zabal hausnartu ostean.

Hurrengo zitak

Bigarren eta hirugarren bilera-ko emendakinak otsailaren

13an bozkatzeko dituzte Villa-Mirentxun, 19:30etan eta laugarren eta azken bilera otsailaren 16an izango da, goizeko 9:30etan leku berean. Maila nazionalerako behin betiko egitura Sorturen I. Kongresu Nazionalan adostuko dute Iruñean, otsailaren 23an.

ZUZENKETA

Irudi korporatiboaren aukeraketa

Lasarte-Oriako Udalak aurreko astean jakin arazi zuen Udaleko irudi korporatibo berria aukeratzeko prozesuan zegoela. Horretarako hiru epaimahai martxan jarriko zirelaren berri eman genuen. Alderdien mahaia eta elkarteena sortu dira eta azkenik herritarren iritzia jasotzea falta.

Lehenengo astean argitaratu genuenez, lehiaketara aurkeztu diren lan guztiak Manuel Lekuona kultur-etxean erakutsiko dira, baina aste honetatik aurrera izan beharrean, erakusketa otsailaren 4 eta 8a bitartean izango dela jakitera eman du Udalak. Honetara hurbiltzen diren herritarrek epaile izateko aukera izango dute haien bozka emanaz.

Honetaz gain, interneten erakusketa birtuala jarriko da eta bozkatzeko aukera izango da.

FARMAZIAK

Farmazia guardietan aldaketak

Lasarte-Oriako farmazia berria ireki da, Iñigo de Loyola kaleko 9. zenbakian, Gandarias-Urbe farmazia. Hori dela eta farmazia guardietan hau gehitu eta aldaketak egongo direla jakin arazi dute herriko farmaziek. Gaur, esate baterako, Gandarias-Urbe farmazia berria dago gardian.

Honetaz gain, gauean larrialdiren bat duten herritarrek ere farmazia berri batera jo behar dutela aditzera eman dute. Hemendik aurrera, Hernaniko Aldabe farmazia izango da gauean irekia egongo dena. Hau Perkaiztegi kaleko 8. zenbakian dago.

Herriko eskoletan eskaintza zabala

Lasarte-Oriako ikastetxeetan aurre matrikula egiteko aukera gaur hasi eta otsailaren 8a bitartean egin ahal izango da **D** ereduaren aldeko apostua egiten dute guztiak

Lehen Hezkuntza buruzko 6-11 urte arteko, Landaberi eta Sasotia-Zumaburu eskolatik daude aukeran. Bi eta hiru urterekin eskolan hasia egoteko zaien laurak 2010 eta 2011 jatorrikoak dira aurretik. Seigarren maila bukatuta, Derrigorreko Bigarren Hezkuntzako ikasketak gauzatzeko Landaberi BHI eta IES Lasarte-Usurbil BHI-ra jo dezakete Lasarte-Oriako gazte txokoak eta azkenik, batxilergoko ikasketak egiteko, 16-18 urte bitartean, IES Lasarte-Usurbil BHI-n legoako aukera. Honetan eskaintzen diren

berri eman eta berrikuntzak azpimarratu nahi izan dituzte. Herriko hezkuntza ibilbideari dagokionez, 0-3 urte inguruan hasian artu gara herrian daukan ikasketarako aukerak. Datoren ikastetxerik ez dagoen bitartean, Haur Hezkuntza, 2-5 urte, eta



Landaberiako ikasketen erakundearen inguruan ikasten diren ikasleak.

BADIRA ATE BAT IREKITEAZ HASTEN DIREN AMETSAK.

"LANERARAKO GARRANTZAN TREBATZEKO, TRIDE-LANERAN ETA PROIEKTUEN BITARTEZ IKASTEN DUGU."

Unai Ollaketa, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako 3. mailako ikaslea.

PRESTY MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

- Goi Eskola Politeknikoa** ARRASATE - OTSAILAK 2 larunbata, 10:30
- Enpresagintza Fakultatea** ONATI - OTSAILAK 2 larunbata, 11:00
- Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea** BIDASOA - OTSAILAK 21 osteguna, 18:00

ESKORIATZA - OTSAILAK 2 larunbata, 11:00
ARETXABAILETA - OTSAILAK 2 larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea-Basque Culinary Center

DONOSTIA - OTSAILAK 14 osteguna, 18:00

ARETO INAGOSIAN
ETORKI GURE DENDA BERRIRA
902 110 436
www.mondragon.edu/prest



hezkuntza ezaguerarik edo eredu berria ez duen eskola izateko aukerak galduta egiten zirela ezagutzen ziren. Beste aukera zen haur eskolara eraman edo "lehen hezkuntza" eraman. Haur ereduaren eredu berriak, haur eskolara eraman edo "lehen hezkuntza" eraman. Haur ereduaren eredu berriak, haur eskolara eraman edo "lehen hezkuntza" eraman.

Sasotia-Zumaburu "eskola publiko" garen neurrian, eskuliduna gure zuzena hartzen dugu, eskolara eraman edo "lehen hezkuntza" eraman. Haur ereduaren eredu berriak, haur eskolara eraman edo "lehen hezkuntza" eraman.


Lasarte-Oriako 18 urte arteko kalitatezko hezkuntza eskuliduna bultzatzen dute herriko ikastetxe guztiak

Lasarte-Oriako 18 urte arteko kalitatezko hezkuntza eskuliduna bultzatzen dute herriko ikastetxe guztiak. Lasarte-Oriako 18 urte arteko kalitatezko hezkuntza eskuliduna bultzatzen dute herriko ikastetxe guztiak.

Lasarte-Oriako 18 urte arteko kalitatezko hezkuntza eskuliduna bultzatzen dute herriko ikastetxe guztiak. Lasarte-Oriako 18 urte arteko kalitatezko hezkuntza eskuliduna bultzatzen dute herriko ikastetxe guztiak.

Lasarte-Oriako 18 urte arteko kalitatezko hezkuntza eskuliduna bultzatzen dute herriko ikastetxe guztiak. Lasarte-Oriako 18 urte arteko kalitatezko hezkuntza eskuliduna bultzatzen dute herriko ikastetxe guztiak.

Lasarte-Oriako 18 urte arteko kalitatezko hezkuntza eskuliduna bultzatzen dute herriko ikastetxe guztiak. Lasarte-Oriako 18 urte arteko kalitatezko hezkuntza eskuliduna bultzatzen dute herriko ikastetxe guztiak.



Herriko ikasketak ez diren ikasleak, honetarako taldea bildu eta aktibitate berriak izan ziren.

Honekin guztiarekin gururako eta gaztearekin gururako eredu berriak, haur eskolara eraman edo "lehen hezkuntza" eraman. Haur ereduaren eredu berriak, haur eskolara eraman edo "lehen hezkuntza" eraman.

Honekin guztiarekin gururako eta gaztearekin gururako eredu berriak, haur eskolara eraman edo "lehen hezkuntza" eraman. Haur ereduaren eredu berriak, haur eskolara eraman edo "lehen hezkuntza" eraman.



Lasarte-Oriako 18 urte arteko kalitatezko hezkuntza eskuliduna bultzatzen dute herriko ikastetxe guztiak.

ERAKUSKETA
Plaza Oriamendi, 2
(Lehenengo Doble J)
20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

Tel: 943 37 76 68
www.ventanasalcara.com
www.facebook.com/VentanasAlcara

TAJERRA
Baitelena, 4
erdiherria 5-A
20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

¡Me gusta

ALCAR VENTANAS

Zuregandik hurbil
Tel: 943 37 76 68
www.ventanasalcara.com

Bandalux

KÖMMERLING

GUARDIAN SUN

CORTIZO

ECORRI GURE DENDA BERRIRA, Plaza Oriamendi, 2. (Lehenengo Doble J)



Sasotia-Zumaburu ikastetxearen inguruan ikasten diren ikasleak.

IGERIKETA.-

Buruntzaldea IKT-ko igerilariak fin lehiaketetan

Zarauzko III. Master Openean hainbat garaipen lortu eta Buruntzaldea IKT bigarren izan zen

Master mailako eta alebin eta benjamin mailako igerilariak ez zuten atsedenik izan lehengo asteburuan. Masterrek Zarauzko III. Openean parte hartu zuten eta txikiak, aldiz, Kirol Zehaztasun Ligako bigarren jardunaldia izan zuten. Ederki egin zuten guztiak igeri eta hainbat domina eta Openean txapeldunordeen trofeoa lortu zituzten.

Buruntzaldea IKTko Master, alebin eta benjamin mailako igerilariak lan ederra egin zuten urtarrilaren 19an.

Taldeko masterrak Zarautzeko Aritzatalde igerilekuan izan ziren Zarautzeko III Master Txapelketan.

Sari honetan "masterrek lehiaketako igeriketan parte hartzea eta denboraldiari motibazioa gehitzea ziren helburu nagusiak," aipatu du Borja Apeztegia entrenatzaileak. Eta ederki bete zuten helburua txapelketako sailkapen orokorrean bigarren izan baiziren.

Probak hauek dira Buruntzaldea IKT-ko lagunek egindako postuak.

50 m. bular proban, bakoitza bere mailan, lehenengo postuan izan ziren Mañel Aizpuru, Mikel Esnal Yolanda Pastor eta Amagoia Fernandez de Lezea. Proba honetan bigarren izan zen Gorka Fernandez eta Oier Mitxelena hirugarren.

400 m. libre proban Jose Vicente Martinek 3. postua eskuratu zuen.

50 metro bizkar proban Yolanda Pastor, Amagoia Fernandez de Lezea, Mañel Aizpuru eta Mikel Esnal izan ziren garaile bere mailatan eta Gorka Fernandez bigarren izan zen.

100 m. libre proban Pili Bodegas eta Oier Mitxelena irabazle izan ziren eta Noemi Montero, Yolanda Pastor, Juan Vicente Martin eta Enaitz Ibarburu bigarren postuan amaitu zuten proba.

50 m. tximeleta proban Amagoia Fernandez de Lezea, eta Mañel Aizpuruak eskuratu zuten urrea eta Gorka Fernandez bigarren izan zen.

100 m. estiloak proban Amagoia Fernandez de Lezea irabazle izan zen eta Yolanda Pastor bigarren.

50 metro libreetan, berriz, irabazle izan ziren Pili Bodegas eta Mañel Aizpuru; bigarren postua Noemi Montero,



Buruntzaldea IKTko master taldeko kideak eskuratutako sariarekin. BURUNTZALDEA IKT

Juan Vicente Baños eta Oier Mitxelenarentzat izan zen eta hirugarren postuan izan ziren, Yoana Gonzalez, Jose Luis Sevillano eta Gorka Fernandez.

4x50 m. libre eta 4x50 m. estilo talde mistoak 5. postuan amaitu zuten lehiaketa.

KZL 2. jardunaldia

Era berean, taldeko benjamin eta alebinek Kirol Zehaztasun Ligako bigarren jardunaldia izan zuten. Borja Apeztegia entrenatzaileak adierazi duenez, guztiak markak hobetu zituzten.

Hala ere, aipatzekoak dira 2003- 2004 urteetan jaiotako haurren artean, 50 m. libreetan Joane Arzallus irabazle izan zen eta Aintzane Sarobe eta Eneko Elizasu bigarren.

100 metro libreetan, Leire Martin irabazle izan zen, 3. postua Aiora Casadorentzat izan zen eta Nora Qian Villamediana laugarren izan zen. Mutiletan, Unai Somovilla bigarren izan zen.

6x25 m. bizkar proban talde mistoak 9. postua eskuratu zuten.

Alebinetan, Irati Arzallus lehengo izan zen 50 m. bizkar eta 200 metro libreetan.

Era berean, 2. urteko alebinetan, bizkar proban Nahia Jie Villamediana izan zen irabazlea, Leire Carcedo eta Jon Ibarгойen laugarren izan ziren eta Nora Irazusta eta Beñat Alkorta bosgarren.

200 m. libre proban ere Nahia Jiek lortu zuen garaipena, Jon Ibarгойen laugarren izan zen eta Nora Irazusta bosgarren.

Eta 4x50 metro tximeleta proban mutilak 4. postua eskuratu zuten.

Jone hirugarren

Honetaz gain, Jone Vazquez igerilari, Luzera Handiko Euskadiko txapelketan izan zen Getxon. Infantil mailako 2000 libre proban parte hartu eta brontzezko domina eskuratu zuen igerilari gazteak.

Eta Borja Apeztegiak azaldu digunez, proban 1500 metroetako pasean bere marka pertsonala hobetu zuen.

Euskal selekzioa

Bestalde, Iñigo Ibarburuk euskal Selektzioaren deia jaso du.

Borja Apeztegia entrenatzaileak jakin arazi duenez, Ibarburuk otsailaren 2 eta 3an ospatuko den Komunitate arteko Espainiako Txapelketan proba ugarietan parte hartuko du.

SASKIBALOA.-

Infantil txikiak Gipuzkoako txapelketaren bila

Landaberri ikastolako infantil txiki mailako saskibaloitza taldea partehartze ligako bigarren fasean ari da lehiatzen.

Iker eta Beñat Elicegui anaiek zuzendutako taldeak urritik abendura lehen fasea jokatu zuen eta honetan jokatutako zortzi partidak irabazi zituen.

Era honetara, DBH1 mailan dagoen neska taldeak 2. faserako txartela eskuratu zuen arazorik gabe.

Bigarren fasea

Landaberriko neskekin batera beste bost talde egin dute aurrera, Hondarribia-Irun, Easo 00 San Patricio Txiki, LEK Eskoriatza, Easo 00 Loyola Txiki eta Bera Bera Peñaflores B Txiki.

Partehartze txapelketako bigarren zatian bi itzuli jokatu beharko dituzte eta sailkapene-



Landaberriko nesken Infantil txiki saskibaloitza taldea, Iker eta Beñat Elicegui entrenatzaileekin.

neko lehen lau taldeak azken fasea jokatuko dute apirilaren.

Urtarrilaren 12an hasi zuten bigarren fasea hau eta Hondarribia-Irun taldearen aurkako norgehiagokan 47-50

gailendu ziren lasarteoriatarak.

Aste honetako partida

Asteburu honetan, Easo 00 Loyola Txikiaren aurka neurtu

zituzten indarrak herriko saskibaloilariak larunbata goizean kiroldegian jokatutako partiduan.

Jaun eta jabe izan ziren partidua hasi eta buka, laurden guztietan gailendu ziren Landaberrikoak eta amaierako emaitza 54-16 izan zen.

Iker Elicegui entrenatzaileetako batek argitu digunez, "espero baino errazago" irabazi zuten partidua, baina hobetzeko tarterik badutela onartu zuen: "Eraso estatikoan hobetu behar dugu batik batik, kontraerasoan eroso iritetzen gara, baina joko erritmoa jais-tean hobeto jolas dezakegu".

Hurrengo partidua Eskoriatzaren aurka jokatuko dute Lasarte-Orian eta Gipuzkoako txapelketaren bila buru-belarri jarraituko dutela argi utzi nahi izan dute entrenatzaileek.

Endika Gartzia hirugarren Betelun

Urtarrilaren 20ean, VIII. Araitz Betelu krosa ospatu zen. 8 kilometrotako proba honetan 175 korrikalarik parte hartu zuten eta hirugarren postuan izan zen Endika Gartzia herritarra, 26:43.

Baina ez zen senior mailan sailkapeneko lehen postuetan izan zen lasarteoriatar bakarra izan Raul Gomez Margallo, 25:16, bosgarren izan zen eta Jose Luis Delgado, 27: 58 bedertzigarren izan zen.

Emakumeen senior mailan, berriz, Amagoia Fernandez de Lezea herritarra 8. postuan izan zen.

Honetaz gain, Afedegik antolatzen duen Kirolprobak Ligako lehiaketan Endika Gartziak lehen postua eskuratu du Mendiko Ligan. Endikak lau probatan parte hartu eta lehenengo hamarretan izan zen guztietan.

LABURRAK.-

Agenda

Urtarrila osoan zehar, Jalgi Kafe-antzokian



Loreak eta margoa

Naroa Etxeberria margolariaren lanak ikusgai daude. Oleoz eta akrilikoz egindako koadroek osatzen dute erakusketa. Loreak dira gai nagusia eta koadro ezberdinekin konposaketak egiten ditu. Hamar urte zituela hasi zen margotzen errenteriatar gaztea, eta bere lan gehienetan gai nagusia musika izan da orain arte.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 3, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "El origen de los guardianes" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

Osteguna 7, 21:30ean

Ostegun zinea atalean, "La pequeña Venecia" filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.



Urpeko Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Astelehenera, 19:30ean

Danok Kide elkarteak Real Sociedad kirol elkarteke urpeko sailaren laguntzaz II. Urpeko Zinema Zikloa eskainiko du. Nazioarteko filmak ikusteko aukera izango da hiru egunetan: otsailaren 4, 11 eta 18an. Sarrera doakoa izango da.

Jaiak

LASARTE-ORIA

Larunbata 9-Igandea 10

Inauteriak izango dira Lasarte-Orian. Larunbatean Munduko Kulturak izango dira nagusi. Herriko elkarte eta koadrilak dantzari ikusteko aukera izango da. Igandean, berri, Euskal Inauterien txanda izango da.



Eskutitza

Parte-hartu Sorgin Jaien hausnarketan

Duela astebete izan genuen Sorgin Jaiak antolatzeko bilera eta ez da lehena izan, aspaldi hasi bainekin honetan, iazko jaien gabeziak identifikatu eta hauek hobetzeko ilusioz.

Gerta liteke norbait egutegiari begira jarri eta harrituta geratzea, "Urtarrila da, goiz hasi zarete..." esanaz bezala. Sorgin Jaiak bizitzeko bi modu daude; bata litzateke zurea, momentukoa, txupinazoa hasi eta jaiak bukatu bitartekoa, bestea litzateke gurea, aurreko jaiak bukatu berriantolatzeko baloraziotik hasi eta aurtengo jaien bukaeraren bihararainoan txozna gunearen desmontajea eta garbiketaren bukatuko ez dena.

Kontua da aurtengo ez dugula "zu" eta "gu" nahi, edo hobeto esanda, "zu" ere nahi zaitugula "gu" honetan. Lehengo urtekoari buruzko gogoetatik abiatuta, aurtengoan jai ereduari inoiz baino garrantzia handiagoa ematea erabaki dugu, benetako jai herriko eta parte hartzaileak nahi ditugulako. Urtero urtero errepikatutako "herriatik, herriarentzat" lema txoznako edalontzietatik kanpo, herritarren sentipen eta ekintzetan islatu dadin.

Guk nahi ditugun Sorgin Jaiak ez dira gazte gutxi batzuk herritar gutzientzat antolatutakoak. Kuadrila, talde, eragile... ezberdinak nahi ditugu lanean, adin eta pentsaera ezberdinetako herritarrak. Gunea inoiz baino koloretsuagoa izan dadin parte-hartze zuzena izango dutenak. Iazkoari begira jarrita, esaterako, herri oso bat marixan eta lanerako prest egonda, ez du zen-

Andoain

Literatura solasaldia

UDAL LIBURUTEGIAN

Asteartea 29, 19:00etan

Mario Benedetti-ren "La Tregua" liburuari buruzko solasaldia egingo da, Ane Mayozen zuzenduta. Parte hartzeko izena eman behar da liburutegian.

Musika

BASTERO KULTURGUNEA

Ostirala 01, 21:30ean

"Travellin' Brothers Big Band"-en kontzertua. Sarrera 10 euro.

Astigarraga

Hitzaldia

UDALETXEAN

Asteazkena 30, 19:30ean

Herriko elkarteak antolatuta, Goieneko kooperatibaren hitzaldia. Energia berriztagarriak, elektrizitate enpresa handien alternatibak, etb. hitz egingo dute.

Usurbil

Aurkezpena

SUTEGIKO AUDITORIOA

Osteguna 31, 19:30ean

Aitzaga Elkarte eta Usurbilgo Udalak antolatuta Torturari buruzko liburu aurkezpena. Euskal Herrian inoiz torturaren inguruan egin den bildumarik zabalena argitaratu berri du Euskal Memoria Fundazioak.

Herritarren txokoa

Errepide mozketak

Hurrengo asteartean, urtarrilak 29, goizeko 8etatik arratsaldeko 20ak arte Adarra kaleko errepidea moztu egingo dela jakinarazi nahi du Udalak.

Egun horretan, Adarra kaleko etxebizitza berriak hornituko dituzten gasaren tuberiak sartu behar dituzte eta horretarako lurra zulatu beharko da.

Beraz, ezingo da pasa kale honetatik garajetuk aterto edo sartzeko ere.

Sortu daitezkeen aparkaleku arazoak direla eta, Udalak jakinarazi nahi dizue Andatza plazan aparkatzeko baimena ematen duela urtarrilaren 28 eta 29an.

Azkenik, Udalak sentitzen du lan hauek sortuko dituzketen eragozpenak.

Galdutako haur-manta

Astelehenean haur-manta galdu zen Beko kalen, kiroldegi eta osasun zentro artean. Arkaitz izena du bordatua. Aurkitu duenak dei dezala 616 333 017 zenbakira. Pili.

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte

Osasun Zentroan gaur, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta!

Buruntz-Azpi ehiza txapelketa

Buruntz Azpi elkarteak otsailaren 2an txakurrarekin egiten den ehiza xeheko txapelketa antolatuta du.

Elkarteko bazkide eta kirol bazkideek izena eman ahal dute Buruntz Azpi elkarteke egoiztan. Azken eguna urtarrilaren 31a izango da.

æk
18.korrika

Korrikako laguntzaile txartelak

Korrika 18-ko laguntzaile txartelak honako lekuetan daude salgai: Jalgi Kafe-antzokia, Artizar taberna, Ilargi taberna eta Muntteri-AEK-n. 12 euro balio duen txartela erosi, laguntzaile direla adierazten duen pina eta Euskal Herriko ehunka komertziotan beharpenak eskuratuko dituzte herritarrak.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzueta zinegotzia eta Yaiza Ruiz Sahararen Lagunak taldeko kidea azalpenak ematen.

Oporrak bakean igarotzea dute amets Saharako haurrek

Haur sahararrek harrerako familiak behar dituzte

Haur sahararrak Lasarte-Oriako kaleetan barrena ikusi ohi ditugu uda garaian, Oporrak Bakean programaren barnean etortzen dira hona 8-12 urte bitarteko neska-mutil gazteak harrerako familia bat zain dutela. Aurten ordea, larri dabilta familiak aurkitzerako orduan, bi edo hiru harrerako familia behar dituzte eta etxean irribarre bat gehiago hartzeko prest dagoenaren bila dihardute.

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta Sahararen Lagunak taldeak antolatuta, bideo-foruma egin zuten kultur-etxeko hitzaldi-aretoan ostiral arratsaldean.

Bertan, Javier Bardem zuzendariaren "Hijos de las nubes" dokumentala ikusteko aukera izan zuten eta ostean, Gorka Lizarraga zinegotziak eta Yaiza Ruiz herritarrak Mendebaldeko Sahararen errealitate gordina azaldu zieten bertaratu ziren dozenaka ikusleei.

Aipatu zuten, urtero egiten den Sahara Maratoia bertan behera geratu da eremuko gatazka direla medio, eta beraz, ezin izango dute bide horretatik errefuxiatu kanpamenduetara laguntzarik bidali. Hori bai, urtero bezala euskal karabana aritu da jantzia biltzen herri ezberdinetan eta beldutako gutzia sahara-

reiri iritsi dakien saiatuko direla azpimarratu zuten.

Programaren helburuak

Hiru helburu nagusi ditu "Oporrak bakean" programak. Batetik, kanpamenduetako haur populazioari udako bi hilabete gogorretatik irteera posible egitea (50 gradutik gorantz izaten dituzte Saharan). Bestetik, Euskal Herriko egonaldia mediku azterketa orokorrak egiteko baliatzea eta azkenik, errekuperazio fisikoa gauzatzea elikadura orojakile bat aurrera eramanez.

Bizitako esperientzia

Yaiza Ruiz Sahararen Lagunak taldeko kideak aipatu zenez, esperientzia "oso aberasgarria" da bai familientzat baita umeentzat ere. "Daukazuna baloratzen ikasten duzu, eta ditugun arazoak erlatibizatzen dituzte aparta-

da", zioen ziur.

Dirua baino gehiago "pazientzia, ilusioa eta motibazioa" behar direla azpimarratu zuten eta egonaldia "berehala" pasatzen dela ohartarazi zuten entzuleei.

Aaiungo kanpamendutik etorritako Mbarek Hamyd-ek azaldu zuenez, bertako errealitatea "latza" da, gerra egoera eta laguntza humanitaroen jaitziera aipatu zituen besteak beste, eta haur sahararrek beste mundu bat bizitzeko eta gozatzeko "eskubidea" dutela esan zuten.

Kontakturako bideak

Ume sahararrak etxean hartzeko interesa duena harremanetan jar daiteke Lasarte-Oriako Gizarte Zerbitzuekin (943 37 61 79) edota herriko Sahararen Lagunen Udal Elkartearekin (607 501 797). Bestalde, twitter (@saharalasarate) eta facebook (facebook.com/sahara.lasarteoria) kontuak ere jarri dituzte abian ekimena zabaldu asmoz. Email bidez (saharalasarate@gmail.com) ere jar daiteke harremanetan Sahararen Lagunak taldearekin. Herritar guztiak animatu nahi dituzte esperientzia "ahaztezi-neran" parte-hartzeko.



Ruiz, Lizarraga eta Mbarek Hamyd sahararra, Aaiungo kanpamendutik etorria.



Bardemen "Hijos de las nubes" dokumentaleko fotograma bat.



Aurkezpenaren erakutsitako galeriako bi irudi, errefuxiatu kanpamenduetakoak.



ZERBITZUAK

- Jangela (propioa)
- Autobusa
- Eskolaz kanpoko ekintzak : kirol jarduerak eta jarduerak kulturalak
- Haurtzaindegia (08:00etatik 09:00era)
- Donostiako Autobusa: 5,24,25,27 eta 33 lineak
- Topoa: Lugaritz

Manuel de Lardizabal Pasealaekua, 25 • DONOSTIA 20018
Tel.: 943 211764 / 620761809 • Faxa: 943 217477
E-maila : secretaria@donostia.teresiaeskola.com
www.santateresaikastetxea.com

SANTA TERESA IKASTETXEA



EUSKARA, GAZTELANIA ETA INGELESA (CIM proiektua) MINTZAMENA LANTEKO AMERIKARREKIN KLASEAK

TUTORETZA: ARRETA PERTSONALIZATUA

INGURUGIROAREKIN KONPROMISOA: AGENDA 21

KALITATEAREKIN KONPROMISOA: EFQM

ZATOZ GU EZAGUTZERA!

2013/2014 IKASTURTERAKO Matrikulazio EPEA
URTARRILAREN 28tik OTSAILAREN 8ra

- * 1-2 URTEKOEN GELAK - AULAS 1-2 AÑOS D Eredua
 - * HAUR HEZKUNTZA-EDUCACION INFANTIL D Eredua
 - * LEHEN HEZKUNTZA-EDUCACION PRIMARIA B Eredu indartua
 - * D. B. H. -ESO B Eredu indartua
 - * BATXILERGOA A Eredu indartua
- (Humanidades y CCSS - Ciencias y tecnología)